

IKASTETXEETAKO ZUZENDARITZEK LANPOSTU ZERRENDAREN (LPZ) APLIKATIBOA BETETZEKO AINTZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxeko Lanpostu Zerrendaren (LPZ) aplikatiboa betetzeko **Ikastetxe publikoetan langileak esleitzeko irizpideen** dokumentua hartu behar da kontuan. Dokumentu hori 2025eko maiatzaren 9an eguneratu zen iazko greba eta mobilizazio dinamikaren ondorioz, akordio arautzailearen eranskin gisa; aurreko ikasturtearen aldean, hainbat baliabide gehigarri jasotzea lortu genuen.

Jarraian, **2026-2027 ikasturteko** LPZren aplikatiboa betetzeko puntu nagusiak laburbiltzen ditugu.

1.- Taldeak osatzeko gehieneko ratioak

1.1 Haur Hezkuntza

2 urteko gelak:

- Gehienez 18 ikasle talde bakoitzean.

Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3, 4 eta 5 urte):

- Gehienez 20 ikasle.
- HKI altuko ikastetxeetan gehienez 18 ikasle.

1.2. Lehen Hezkuntza

Gehienez 22 ikasle talde bakoitzean.



Sailak 22 ikasleko ratioa Lehen Hezkuntzako 1. mailan bakarrik ezarri nahi du. Plantillak esleitzeko irizpideen akordioak jasotzen du Lehen Hezkuntzan 22 ikasleko ratioa aplikatuko dela 2026-2027 ikasturtetik aurrera.

1.3. Talde mistoak eta adin anitzeko taldeak

> Bi adin desberdineko taldeak:

Haur Hezkuntza:

- 2-3 urteko 18 ikasle gehienez.
- 19 ikasle gehienez gainerako urteetan.

Lehen Hezkuntza:

- Gehienez 20 ikasle.

> Hiru adin desberdineko taldeak

Gehienez 15 ikasle.

> Lau adin edo gehiago dituzten taldeak

Gehienez 12 ikasle.

1.4. Ratioei buruzko ohar orokorrak

- Errepikatzaileak** ratioaren barruan zenbatuko dira.
- Ikasturtean zehar sartzen diren **ikasle berriak** ere kontuan hartuko dira.
- Haur Hezkuntzan taldeak ez dira automatikoki bateratuko matrikula galtzeagatik, gela bakoitzean 10 ikasle baino gehiago badaude.

1.5. Ikasle/irakasle ratioak

- 2 urteko gelak:** 1 / 12
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa:** 1 / 18
- Lehen Hezkuntza:** 1 / 20

2.- Irakastorduak murriztea

Haur eta Lehen Hezkuntza

2026-2027 ikasturtea

- Gehienez 21 irakastordu.
- Murrizketa horren ondorioz, honakoa zehazten du akordioak: "Hezkuntza Sailak behar besteko ordu-kredituak esleitzeko honetan ezarritako murrizketaren eraginez suertatutako eskola-ordutegiaren orduak betetzeko."



Hezkuntza Sailak LPZren kalkulurako zuzendaritzetara bidalitako dokumentuan honakoa jartzen du: "Ordu konpentsazioa asteko ordu lektiboak 21 izateko: 16 edo gehiagoko ikasle/talde ratioa duten ikasmila kopurua bider 2 zati 21".

laz bezala, ordu jaitsieragatiko konpentsazioa aldebakarrez eta modu murriztailean aplikatu du Sailak. Irizpide hori ez da sindikatuokin negoziatu eta ez dago inon jasota. Formula horren helburu bakarra ikastetxeetara behar direnak baino baliabide gutxiago bidaltzea da.

3.- Ikastetxearen baliabide egonkorrak

3.1. Langileak kudeatzeko ordu-kredituak

- 30-49 pertsona, lanaldi osoaren gaineko 0.33 kreditu
- 50-75 langile, lanaldi erdia
- 60 langiletik gora, lanaldi osoko zuzkidura.

3.2. Berrikuntza- eta prestakuntza-proiektuen koordinatzailea

- 9 taldera arte, 0,50.
- 9-19 taldekoak, lanaldi oso bat.
- 20-29 taldekoak, lanaldi eta erdiko kreditua.
- 30 taldetik aurrera, 2 lanaldi oso.

3.3. Aholkulari-plazak

- 6 talde arte, 0,5 lanaldi.
 - 7-12 talde, lanaldi oso 1.
 - 13 taldetik aurrera, 1,5 lanaldi.
 - 400 ikasletik aurrera, 2 lanaldi oso
 - 600 ikasletik gora, 2,5 lanaldi.
 - 800 ikasletik gora 3 lanaldi.
 - 1.000tik aurrera, 4 lanaldi.
- HKI altua edo oso altua duten ikastetxeetan, bigarren aholkularia 350 ikasletik aurrera esleituko da, eta gainerako tartean proportzionalki esleituko dira.

3.4. Pedagogia terapeutikoko plaza egonkorak

- 8 taldera arte, 0,5 lanaldi eta 100 ikasle baino gehiago badaude jardunaldi osoa.
- 9-19 taldera arte, lanaldi osoa.
- 19 taldetik gora, 2 lanaldi osoak.
- 500-750 ikasle bitarteko ikastetxeetan, lanaldi bat gehiago.
- Ikastetxeak 750 eta 1.000 ikasle artean baditu, bi gehiago.
- Azkenik, 1.000 ikasletik gorako ikastetxeetan hiru gehiago izango lirateke.

3.5. Jantokiko arduradunaren plaza

- Dotazio hori egungo parametroetan mantenduko da administrariak lanean hasi arte.

3.6. Administrari laguntzaile plaza

- 5 taldetik 7ra, 0,33 lanaldi (0,50 jantoki-zerbitzua ematen badu ikastetxeak).
- 8 taldetik 19ra, 0,5 lanaldi (0,50 gehiago ikastetxeak jantoki-zerbitzua ematen badu).
- 20 taldetik 29ra, lanaldi osoa (0,50 gehiago ikastetxeak jantoki-zerbitzua ematen badu)
- 30 taldetik 39ra, 1,5 lanaldi (0,50 gehiago ikastetxeak jantoki-zerbitzua ematen badu)
- Gainerako 2 lanaldi osoak (0,50 gehiago).

3.7. IKT teknikariaren plaza



- 5-9 talde: 0,33 lanaldi.
- 10-19 talde, 0,5 lanaldi.
- 20-29talde: lanaldi osoa.
- 30-39 talde: 1,5 lanaldi.
- Gainerakoak 2 lanaldi.

3.8. Eraikin anitzeko ikastetxeak

- Gutxienez 500m-ko distantzia dagoen zentroetan baliabide gehigarria eskatzeko aukera.

4. Premia zehatzei lotutako baliabideak

4.1. HIPI laguntza-taldeko eta EUSLE programako plazak

- 2-6 ikasle, 0,5 lanaldi.
- 7-12 ikasle, 1 lanaldi.
- 13-18 ikasle, 1,5 lanaldi.
- 19-24 ikasle, 2 lanaldi.
- 25-30 ikasle, 2,5 lanaldi.
- 6 ikasleko 0,5 lanaldi.

EUSLE programa Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara zabalduko da.

4.2. Hizkuntza proiektuetarako baliabideak

HKI altua eta oso altua duten ikastetxeei hizkuntza-proiektuaren koordinatzaile bat emango zaie:

- 15 talde arte: 0,5 jardunaldi
- 16 taldetik aurrera: jardunaldi bat

4.3. Entzumen eta Hizkuntza Irakasleak (EHI)

- 4-8 talde, 0,5 lanaldi.
- 9-16 talde, lanaldi 1.
- 17-24 talde, 1,5 lanaldi.
- 25-31 talde, 2 lanaldi.
- 32-37 talde, 2,5 lanaldi.
- 38-44 talde, 3 lanaldi.
- >45, 4 lanaldi.



Hezkuntza Sailak LPZren kalkulurako zuzendaritzetara bidalitako dokumentuan honakoa jartzen du: "HH 3 urteko mailatik LH2ra bitarteko talde kopuruaren arabera."

Plantillak esleitzeko irizpideen akordioan ez du horrelako irizpiderik zehazten. EHI/ALE figuren baliabideetarako irizpideak aldebakarrez eta modu murriztailean aplikatu ditu Sailak. Irizpide horiek ezartzearen helburu bakarra ikastetxeetara behar direnak baino baliabide gutxiago bidaltzea da.

4.4. Ongizate eta Babeserako koordinatzailea (OBK)



- 20 taldera arte 0,17 lanaldi (5 lanordu).
- 21-40 talde 0,25 lanaldi (7,5 lanordu).
- 41-50 talde 0,33 lanaldi (10 lanordu).
- 51-60 talde 0,50 lanaldi (15 lanordu).

4.5 Hezkuntza konplexutasun handiko ikastetxeak

- Lineako 0,5 lanaldi definitu ahal izango dute zuzendaritza-taldeak zehaztu beharreko esku- hartze zehatz bat.



GIDA SINDIKALA

Maiz egiten ditugun
galderei erantzuna



www.irakaskuntza.lab.eus

LAB¹
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA